

Elgoibar 1324. zenb.
XXXI. urtea - 2024/04/19



Mendaroko dukea

'Txirristaka' bertsolariaren jaiotzaren 150. urtemuga



Olaso kalea, 15, 20870 Elgoibar

 **660 912 542**



Autoa garbitzea da gutako askok beti gerorako uzten dugun lanetako bat. Denoi gustatzen zaigu autoa garbi izatea, baina denborak estu hartuta bizi gara, eta beti dira aurretiagoko kontuak egiteko etxean. Ondo daki hori Ivan Moralesek.

Autoak garbitzeko enpresa batean eman zituen hilabeteak lanean Ivanek, eta negozio aukera polita iruditu zitzaion Elgoibarren autogarbitetarako enpresa bat sortzea. Autozalea da, eta autoak garbi mantendu zalea, eta jabetuta zegoen bere antzekoek zein gaizki daramaten autoa garbitzeko astirik hartu ezina. Halaxe animatu zen autogarbitetarako enpresa sortzera Elgoibarren. Eskarmentua bazuen lanean. Autokarabana munduan zebilen lagun on bati komentatu zion ideia eta hark bultzatu zuen aurrera egitera, autokarabanen munduan garbiketa sakona egiteko zerbitzuen gero eta eskari handiagoa zegoela eta profesionalak falta zirela esanda.

Enpresa sortzeko, bere beharretarako baldintzak betetzen zituen lokal bila hasi zen eta topatu ere egin zuen nahi zuen ezaugarriko lokala, leku onean. Olaso kaleko 15. zenbakian zabaldu du lokala eta joan den astetik ari da lanean bertan, Elgokar izenarekin. Era guztietako ibilgailuak garbitzen ditu, kanpo eta barru: auto klasikoak, furgonetak, camper-ak, autokarabanak...

Elgokarren, askotariko zerbitzuak eta tarifak eskaintzen ditu. Kanpotik nahiz barrutik garbitzen ditu ibilgailuak, eta zerbitzu integrala aukeratzen den kasuetan, haurrentzako autorako aukitxoak ere garbitzen ditu, gero eta bezero gehiagok eskatzen dutena, bide batez esanda.

Zerbitzu ona, hurbilekoa eta kalitatezkoa eskaintzen du. Horixe zen hasi aurretik bere

buruari jarri zion erronka, eta horretarako eskura dauzkan baliabide guztiak erabiltzen ditu. Herriko negozio txikien ezaugarri den gertukotasun hori eskaintzen dio bezeroari, arreta pertsonalizatua, bai eta ahal diren erraztasun guztiak eman ere. Hala, eta nahi izanez gero, ibilgailua jaso, garbitu eta eskatutako lekura entregatzen dio autoa bezeroari, hark ez dezan denborarik galdu, ez eta behar ez den burukominik hartu ere.

Elgokarren ibilgailua garbitzeko ordua eskatu behar da aurrez. Horretarako Hiru bide daude: webgunetik sartuta (www.elgokar.com), nahiz telefono bidez, 660 912 542 telefono zenbakira deituta edota whatsapp bidez bidalita.



- ✓ Kanpoko oinarrizko auto garbiketa
- ✓ Oinarrizko barne auto garbiketa
- ✓ Kanpo-garbiketa, premium
- ✓ Barne-garbiketa, premium
- ✓ Barne-/kanpo auto garbiketa + haguak
- ✓ Barne-/kanpo auto garbiketa + IAT
- ✓ Desodorizazioa eta desinfekzioa
- ✓ Fokuak leuntzea
- ✓ Saltzeko ibilgailuak prestatzea
- ✓ Larruzko tapizeriak garbitu eta hidratatzea
- ✓ Haurren autoko eserlekuak garbitzea

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

Izaro Etxegibel Soraluze Euskara teknikaria

Sakura



"Ulertu du bizitza dela sakurak bezain eder, baina are gehiago iheskor, igarokor, iragankor, galkor, labur eta motz"

Geruzarrosakara batek estalia ikusi du bide bazterra, elur maluten antzera erortzen zaizkio petaloak buru gainera, aurpegian sentitzen ditu. Ez du geroko edo biharko utzi nahi izan eguneroko pasealdia, euria datorrela esan dio bizilagunak, hala ere, zerua urdin dago oraindik. *Cerasus serrulata* - *Prunus serrulata* ikusi du idatzita gereziondo japoniarren azpiko kartelean. Badaki hori jartzen duela, borratuta daude letrak eta ez da erraza ezer irakurtzea haize boladek eragindako lore ekaitzaren erdian, baina irakurtzeko gai da.

Aspaldi maitemindu zen zuhaitz mota harekin, loraxka delikatu haiekin. Hain iruditzen zaizkio eder, horren iragankor. *Sakura* izena dute loreek. Behin entzun zuen gereziondoen loreei begira ematen diotela ongietorria udaberriari japoniarrek. Parke eta lorategietara joaten omen dira, koadrodun mantelak lurrean zabaldu eta piknik bat eginez, loratutako gereziondoen azpian ederraren kontenplazioan ematen dituztela orduak. Zirrarez bizi du une hori berak ere, udaberria barnean sortzen hasten zaionean gertatzen den moduan. Magikoa iruditzen zaio une hori, eta are magikoagoa sakurek astebete soilik bizirauten dutela jakitea. Edertasunarekin kateatuta sentitzen du bere burua. Ulertu du bizitza dela sakurak bezain eder, baina are gehiago iheskor, igarokor, iragankor, galkor, labur eta motz.

Erleen burrunbak esnatu du pentsamenduen zurrumbilotik, lainotzen hasi da. Mariorrazak, tximeletak, igelak eta satorrak aurkitu ditu bidean, epel dago, eta kantuan doa "...bizitza une bat dela, bakarrik une bat, inoiz ez ahaztu... bizitza une hau dela, bakarrik une hau, eta gu". Euri tanta bat igarri du eskuan, beste bat, asko; zerua beltz dago eta trumoia entzun du gertu; zaparrada. Etxera bueltan denerako, bide ertzeko geruzarrosakara urak darama estoldarantz.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

XXIX. Jose Gurrutxaga Krosa

Elgoibar Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilaren 14an, ospatutako XXIX. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: BM, DanobatGroup, Alcorta Forging Group, Geminis, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, 'El Diario Vasco', Karakate, Goki Erreformak, Original, ILS, Elgoibar Motor, Metala, Bronymec, Mancisidor, Cordon-Vilarchao, Egotoki, Gare Radio Club, Santi eta Irune Arriola eta Juanjo eta Egoitz Gurrutxaga.

Bestalde, eskerrik beroenak baita ere, parte-hartzaile guztiei. Datorren urtean, XXX. Jose Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Jose Gurrutxaga Krosa Batzordea

Amesgaiztoa

Badaude ametsak eta Amesgaiztoak. Bart Amesgaiztoa izan da, baina benetakoa zirudien, segidan azalduko dizuet: Ohetik altxatu ondoren, beti bezala, dutxa hartu nuen eta kalera irten nintzen gosaltzera. Zapatua zen nire Amesgaiztoan, ondo gogoratzen dut ganadu feria zegoelako eta Elgoibarren zapatuan izaten delako, hileko azken zapatuan. Kontua da, kalean zehar nindoala, heldu, gazte eta ume gehienak gaztelaniaz ari zirela, eta hori, zoritxarrez, Elgoibarren ez ezik, beste herri askotan ere gertatzen da.

Beno, "ni gosaltzera noa" esan nion nire buruari, eta horrela egin nuen. Kamareroak "buenos dias" esan zidan; nik, aldiz, "egun on", eta kafe bat eskatu nion. Bere erantzuna hauxe izan zen: "No le entiendo, qué idioma es ese?". Azalpenik eman gabe tabernatik irten nintzen, kaferik hartu gabe. Jarraian denda batean sartu nintzen erosketa batzuk egitera, eta gauza bera gertatu zitzaidan. Pentsakor geratu nintzen, baita oso triste ere. Zer demontre ari da gertatzen? Ulertezina da. Orain dela gutxi bukatu da 23. Korrika Baionan eta jendetsuena izan da; denak

euskararen alde, denak euskaraz hitz egiten, eta gaur, inork ez daki gure hizkuntza. Aizue, euskara ez da egun bakarrekoa bakarrik, urteko egun guztietakoa baizik.

Ametsak errealitate bilakatu ditzakegu, tematzen bagara. Ez dezagun gauza bera egin Amesgaiztoekin.

Harro herri.

I.C.L.

Osakidetza, egoera larrian

24/7 plataforman Elgoibarren egin berri diren Osakidetzari buruzko mahai inguruei buruzko balorazioa egin dugu. Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiegu sindikatuei (SME, ESK, ELA, LAB eta SATSE) eta alderdi politikoei (EH Bildu eta Ahal Dugu), beren parte-hartzeagatik eta erakutsitako maila altuagatik. Eskerrak baita ere Elgoibarko herritarrei, mahai inguruetan aktiboki parte hartzeagatik, eta Iboni bere gidaritzagatik.

Osakidetzaren egoeraren ikuspegi paregabea eskaini zuten. Datuek Osakidetzaren errealitate gordina islatzen dute, eta agerian geratu da Osakidetzako profesionalen lan-baldintza prekarioak dituztela, gure osasunaz arduratzen diren horiek merezi duten duintasunetik urrun. 2009tik lan-hitzarmenik gabe daude, eta 45.000 langile izanik, behin-behinekotasun tasa %54koa da.

Kezkagarria da 2024an pertsonako osasun-gastua 2.200 eurokoa izango dela ikustea; Estatuko eta Europako batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa. Aipatu, baita ere, 2023an herritarren kexak aurrekaririk gabeko mailara iritsi zirela: 36.060 kexa jaso ziren, 2022an baino % 10,3 gehiago.

Hori kontuan izanda, ulertzen da EAJ eta PSE-PSOE alderdi politikoen ekitaldian parte hartu nahi ez izatea, nahiz eta Osakidetzako egoeraren arduradun nagusiak izan. 24/7 plataformatik erantzukizuna beren gain hartzeko eta herritar guztientzako osasun-sistema ezin hobea bermatzeko deia egiten diegu. Mahai-inguru hauek inflexio-puntu gisa balio izatea espero dugu, aldaketa esanguratsuak sustatzeko, identifikatutako gabeziei helduz.

24/7 Plataforma

70. urtemuga ospatzeko aste osoko egitaraua antolatu dute Danobaten



Danobat kooperatibak 70 urte bete ditu, eta ospatzeko, astelehenetik domekara arteko egitaraua antolatu dute. Astelehenetik eguenera atea irekiko dituzte arratsaldero, bazkideek etxeko eta ingurukoei lantokia erakusteko aukera izan dezaten. Bizilabe egitasmokoek ere izango dute Danobat ezagutzeko aukera, eguaztenean eta eguenean, 17:00etatik 18:30era. Eguena egun berezia izango dute oso, agintari eta enpresa munduko enpresari bisita jasoko dutelako Danobaten. Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Elgoibarko Udaleko, Debegesako, Spri -Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako, Mondragon Korporazioko, Debegesako, Danobat Groupeko, eta AFM Makina Erreminta Ekoizleen Elkartearen ordezkariak gonbidatu dituzte, besteak beste, eta bisita gidatua egingo diete guztiei.

Herrira begira, baina, ostirala eta domeka izango dira, beharbada, egunik berezienak. Barikuan, Danobaten lanean ibilitakoen eguna izango da. Bazkide sortzaile, bazkide erretiratu eta hildako bazkide sortzaileen familiei harrera egin, lantokia erakutsi eta mokadua ere egingo dute elkarrekin. Domeka, berriz, Danobateko familien eguna izendatu dute eta 800 lagun baino gehiago elkartzea aurreikusten dute. Lantokia ikusteko bisitak, bazkaria, haurrentzako jolasak, puzgarriak, eta bazkideen seme-alabentzat sortu duten lehiaketako sari-banaketa ekitaldia iragarri dituzte egun horretarako, besteak beste.

Sallobenten espazio berde bat diseinatzeko prozesua hasi dute



Sallobente baserri auzoan kokatutako berdegune bat diseinatzeko parte-hartze prozesua jarri dute martxan Atxutxiamaikak eta Kukulaisik, Udalarekin lankidetzan, eta herritarren iritziak eta ekarpenak jaso nahi dituzte orain. Elgoibarren belaunaldi guztientzako "bizigarria" izango den natur-espazio bat diseinatu nahi dute, eta horretarako adin-tarte ezberdinetako herritarrei ari zaizkie galdezka. Umeei eta nerabeei eskatu diete dagoeneko iritzia eta haiek egindako proposamenak Aita Agirre Kultur Kafeko hormetan zintzilikatu dituzte, herritarrek ikus ditzaten.

Iturriko ura banatzeko ontziak jarri dituzte Elgoibarko 11 taberna eta jatetxetan



Kontsumo-ohitura osasungarriak sustatzeko eta *Elgoibar hobe baten alde* programaren barruan iturriko ura banatzeko ontziak banatu dizkie Udalak debalde hala eskatu duten taberna eta jatetxeei: IMH Taberna, The End Taberna, Usua Kafetegia, El Gautxo Taberna, Ilunpe Taberna, Sua Taberna, Kaia Kafetegia, Ametsa Taberna, Olaizaga Kirolegiko Taberna, Gorbeia Jatetxea eta Lanbroa Taberna.

Elgoibarren umeentzako dagoen aisialdi eskaintza aurkeztuko dute bihar

Elgoibarko Hezkuntza Mahaiak (Elgoibarko Herri Eskolak, Elgoibar Ikastolak, Udal Ludotekak, Atxutxiamaika aisialdi taldea eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak) umeentzako herrian dagoen aisialdi-eskaintza ezagutzera emateko jardunaldia antolatu du biharko. Eragile desberdinek euren gunea izango dute plazan, egiten dutenaren berri emateko, herritarren zalantzak argitzeko eta haien galderei erantzuteko. Kalegoen Plazan izango da aurkezpena, 12:00etatik aurrera.



Mendaroko udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute



Mendaroko Udalak prestatu du aurtengo udaldirako programa, eta apirilaren 22tik maiatzaren 5era arteko epea jarri du izena emateko. HH3tik LH6ra arteko umeentzako udalekuak eskainiko dituzte, ekainaren 24tik uztailearen 19ra, 10:00etatik 13:00etara. Bi txanda egongo dira aukeran: ekainaren 24tik

uztailearen 5era lehenengoa, eta uztailearen 8tik 19ra bigarrena. Nahi duenak bi txandatan izena emateko aukera ere izango du. Plaza mugatuak direla aurreratu dute, eta ume kopurua gainditzen bada, zozketa egingo dutela maiatzaren 6an. Izena emateko mendaro.eus webgunean aurkituko duzue informazio guztia.

Zabalik dago Atxutxiamaikaren eta Ludotekaren udaldian izena emateko epea



Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak eta Udal Ludotekak prest daukate udaldirako programa, eta interesatuek apirilaren 28ra arteko epea izango dute izena emateko. Ekainaren 24tik uztailearen 19ra arteko zerbitzua emango dute, bi txandatan banatuta: ekainaren 24tik uztailearen 5era izango da lehenengoa eta uztailearen 8tik 19ra bigarrena. Eskaintza adin tarteka antolatu dute, eta bakoitzaren neurriari egokitu dute programazioa. Txokoak, irteerak eta egonaldiak eskainiko dituzte, besteak beste. Uztailearen 22tik 24ra txoko osagarriak eskainiko ditu Atxutxiamaiakak. Informazio gehiago eta izena emateko: elgoibarkoizarra.eus.

Debarrena Gourmet: gutuziazko zazpi menu bailarako zazpi jatetxetan



Debabarrena Turismok sustatuta, eta apirilaren 22tik maiatzaren 5era bitartean, eskualdeko zazpi jatetxek gutuzia menu bereziak eskainiko dituzte; tartean Elgoibarko Belaustegi jatetxeak. Sorraluzeko Txurruka, Ermuko Mendiola, Eibarko Baratze Gourmet, Itziarko Kanala, eta Mutrikuko Piperren Txokoa eta Pikua dira gainerakoak. Bi aste horietan, jatetxe bakoitzak diseinatu duen menua eskainiko du, zazpi plateraz osatua: aperitiboak, bi hasierako, bi plater nagusi (haragia eta arraina) eta bi postre. Guztia, 60 euroren truke. Ogia eta kafea ere menuan sartzen dira, baita ardoa ere: Viuda Negra Las Levantadas ardo zuria eta Q de Quintano ardo beltza eta txakolina. Otorduz gozatzeko erreserba egin behar da jatetxeetara deituta.

Nekazaritzako ibilgailuen azterketa teknikoak egingo dituzte

Mendaron apirilaren 23an egingo dituzte nekazaritzako ibilgailuen aldiko azterketa teknikoak, 12:00etan, Li-Li parean. Elgoibarren, berriz, apirilaren 25ean, Mintxetako aparkalekuan. Honako nekazaritzako ibilgailuek pasatu behar dute IATA: zortzi urtetik 16 urtera bitarteko traktoreek (bi urtetik behin) eta 16 urtetik gorakoek (urtero). Informazio gehiago eskuratzeko 943 769 753 telefonora deitu, itv.bergara@itasua.com helbidera idatzi edota www.itasua.com web orrian sartu daiteke.

Salamancara bidaia antolatu du Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak Salamancara bidaia antolatu du maiatzaren 27tik 31rako. Elgoibartik La Albercara joango dira lehenengo egunean autobusez, eta hurrengo egunetan Ciudad Rodrigo, Bejar edota Mogarraz bezalako herriak bisitatuko dituzte, gida turistiko baten laguntzaz. Lau izarretako Abadia de Los templarios hotelean hartuko dute ostatu, pentsio osoan. Bazkideak 380 euro ordaindu behar dituzte pertsonako, eta bazkide ez direnek 395 euro logela bikoitzean. Banakako logelak eguneko 26 euroko gehigarria dauka. Bidaia eta ostatuaz gain, Salamancan egingo duten bazkari bat eta spa zirkuito bat ere sartuta daude prezioan. Interesatuak Jubilatuen Biltokiko bulegoan eman dezakete izena, astelehen eta ostiraletan, 11:00etatik 12:00etara.

Berdintasuna sustatzen duten proiektu eta programetarako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik

2024an Elgoibarren genero berdintasuna sustatzen duten proiektu eta programetarako laguntzak eskatzeko epea ireki du Elgoibarko Udalak. Deialdi honek bi dirulaguntza lerro eskaintzen ditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna garatzen laguntzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarteentzat: Lehen laguntza-lerroa, 6.000 eurokoa, berdintasun-programa espezifikoak garatzen dituzten emakume-elkarteentzat soilik izango da. Programa horiek bat etorri behar dute Elgoibarko IV. Berdintasun Planaren helburuekin, eta emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatu behar dute, balioak aldatzea sustatzeaz gain, rol eta estereotipo sexistak ezabatuz. Bigarren laguntza-lerroa, 7.000 eurokoa, genero-berdintasuneko jarduera, programa eta proiektu espezifikoetan lan egiten duten udalerriko irabazi-asmorik gabeko elkarte guztientzat dago zabalik.

Eskaera online egin behar da elgoibar.eus webgunean, maiatzaren 6rako.

8.546 herritarrek eman ahal izango dute botoa Elgoibarren eta 1.443k Mendaron

Eusko Legebiltzarra osatzeko botoa ematera deituta gaude herritarrak domekan, apirilaren 21ean. Botatzeko lekuak p9:00etan zabalduko dituzte eta 20:00ak arte egongo da bozkatzeko aukera. Elgoibarren, 17 mahai egongo dira guztira: Kultur Etxean,

Aita Agirren, Pedro Mugurutzan, San Roken, Urazandin, Altzolan eta IMHn. Mendaron, berriz, udaletxean bi mahai ipiniko dituzte.

Guztira, 8.546 herritarrek izango dute bozkatzeko eskubidea Elgoibarren; Mendaron, berriz, 1.443k.

Bihar zabalduko dute Urruzunoko parkea

Elgoibarko Udalak bihar banatuko ditu Urruzunoko baratzeak, baina aurretik, erabilera araudiari buruzko prestakuntza saio bat egingo dute erabiltzaileekin. 09:30etik 13:30era egingo dute formazio saila, baratzeetan bertan, eta horren ostean emango dizkiete giltzak erabiltzaileei. Baratzeen inguruan dagoen haur eta aisialdirako parkea ere bihar irekiko dute, baina Udalak zehaztu du barrutiaren sarrerako lanak oraindik egiten ari direla eta datozen asteetan amaitzea espero dutela. Hortaz herritarrei pazientzia eta arduraz jokatzeari eskatu diete Udaleko arduradunek.



Aldaketaren ordua dela nabarmendu dute Maddalen Iriarte eta Oscar Matutek Elgoibarren egin duten ekitaldian

Elgoibarko EH Bilduk ekitaldi politikoa egin zuen astelehenean Elgoibarren, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpainaren barruan. Ainara Urkidiren biolin doinuekin hasi zuten ekitaldia, eta Eneritz Azkuek kantuan jarri zituen ezker abertzaleko kideak. Segidan, Maddalen Iriarte, EH Bilduko Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaileak eta Oskar Matute Madrilgo Kongresuko diputatuak hartu zuten hitza. Bi ordezkari politikoek egungo testuinguru politikoaren garrantzia nabarmendu zuten, ezker politikak eta aldaketaren beharra aldarrikatzen duten herritarrak geroz eta gehiago direla nabarmenduz. EH Bilduren hauteskunde programaren erronka eta ildo batzuk ere laburbildu zituzten, hala nola aberastasunaren birbanaketa eta herritarren ongizatea bermatzearen beharra, oinarritzko



zerbitzuen publikazioa. Trantsizio ekosoziala, etxebizitza edo Osakidetzaari buruz ere aritu ziren, azken urteotan herri plataformek egindako lana ere balioan jarriz. Aldaketaren ordua dela nabarmendu zuten, eta aldaketa hori EH Bilduren eskutik etorriko dela esan zuten.



Goiatz Leibar, Seber Uribe eta Josu Ansola, barikuan Elgoibarren egindako aurkezpenean.

SEBER URIBE Bixi proiektuaren bultzatzailea

✍️ Ainara Argoitia 🗣️ Ainhoa Andonegi

Fibrosi kistikoa duten gaixoei eta haien familiei laguntzeko 'Bixi' proiektua jarri du martxan Seber Uribe Aranburu ondarrutarrak, lagunez inguratuta. Olaizaga kiroldegian igeriketa irakasten du Uribek Elgoibarren, eta joan zen barikuan Aita Agirre aretoan aurkeztu zuen proiektua. Uztailaren 26tik abuztuaren 7ra Brusela eta Ondarroa arteko bidea osatzeko du bizikletaz, gaixoek eta haien etxeok administrazioaren eta osasun-sistemaren aldetik jasaten duten arreta eta baliabide falta ikustarazteko, eta paraleloan, diru bilketa kanpaina ere abiatu du. *Bixi.eus* webgunean eman ditu proiektuaren inguruko argibide guztiak.

“Fibrosi kistikoa duten gaixoen familiak salduta daude, eta lagundu nahi diegu”

Zer da 'Bixi'? Zertan datza zuen egitasmoa?

Fibrosi kistikoa duten pertsonen eta haien etxekoei laguntzeko sortu dugun plataforma edo lagun taldea da *Bixi*, Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkarteari (Arnasa) lotutakoa, eta izen bera darama udarako sortu dugun ekimen solidarioak. Nagusiki bi helbururekin abiatu dugu proiektua: batetik, gaixoek eta haien etxeok administrazioaren eta osasun-sistemaren aldetik jasaten duten arreta eta baliabide falta ikustarazteko, eta bestetik, gaixotasun hori duenak zer bizi duen zabaltzeko. Helburu horiekin, udan, Bruselatik (Belgika) Ondarroara arteko bidea egingo dugu bizikletaz, 1.314 bat kilometro guztira. Hamahiru etapatan egiteko asmoa daukagu, uztailaren 26an hasi eta

abuztuaren 7an Ondarroan amaitzeko. Zabaltu nahi dugun mezu horren eskaparate izango da, beraz, bizikleta martxa, eta ekimen honekin lortzen dugun dirua fibrosi kistikoa dutenei laguntzeko elkarreterara bideratuko dugu oso-osorik.

Zein izan zen proiektu hau sortzeko bultzada?

Hiru gertakizun izan dira abiapuntuan. Bat, pandemia aurretik sevillar batzuek gauzaturako ekimena. Sevillatik Euskal Herrira etorri ziren bizikletaz, fibrosi kistikodun gaixoak zeuden herrietan geldialdiak eginez. Ondarroan harrera egin genien, eta orduan sortu zitzaizkidan antzeko beste zerbait egiteko gogoak, ikusita sevillarrek ez zutelako ezer lortu Espainian. Bruselako atea jo behar



nuela pentsatu nuen, botere publikoen konpromisoa lortzeko. Gogoan neukan Elgoibarko Udalak Elgoibar Europako Kirol Hiria izendatua izateko aurkeztu zuen txostenak emaitza izan zuela, eta 'zergatik ez?' pentsatu nuen. Eta hirugarren arrazoia eta nagusia zera izan da: gaixotasun hori duen senide bat daukadala eta gertutik ezagutzen dudala gaixotasunak sortzen duen sufrimendua. Senide horrek, gainera, oso urte txarra izan zuen iaz, eta eragin zigun denoi asko, lehenaz gain. Eta halaxe hasi nintzen, geldika-geldika, proiektua diseinatzeko orain dela urtebete inguru, Josu Ansola lagunaren laguntzarekin. Proiektua amaitu genuenean beste lagun bati, Goiatz Leibarri, eskatu nion informatika kontuetarako laguntza eta diseinu kontuetarako, Iñigo Zabala lagunari deitu nion. Beraz, lagunartean osatu dugu proiektua. Kantua ere sortu nion promozio bideorako, eta Gatz nire musika taldeko artistekin grabatu nuen.

Zer ezaugarri ditu gaixotasunak?

Gaixotasun kronikoa eta hereditarioa da fibrosi kistikoa, eta osasun-arazo larriak eragiten ditu. Batez ere birikei eta digestio-sistemari eragiten dio, eta endekapenezko gaixotasuna da. Mukia sortzen zaie biriketean eta ondo arnastea tratatzen die horrek, eta horregatik medikuntza tradizionalako botikez gain, fisioterapia ere behar izaten dute, bronkioetan mukirik ez pilatzeko. Bestalde, pankreak ere ez die behar moduan lan egiten, eta beste botika batzuk behar dituzte digestio aparatuari laguntzeko. Fisikoki, baina, gaixoari ez zaio igartzen gaixotasuna, lehenengo begiratuan behintzat. 4.500-5.000 jaioberritatik bati eragiten dion gaitza dela esaten da, eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian 180 gaixo inguru daude. Gaixoak antibiotikoei esker bizi dira, eta egunean hamar bat antibiotiko hartzen

"Kronikoa, hereditarioa eta endekapenezko gaixotasuna da fibrosi kistikoa, eta birikei eta digestio-sistemari eragiten die bereziki"

dituzte. Antibioterapia erabiltzen dute bronkioetako infekzio kronikoari eta infekzioei aurre egiteko. Bizitza luzatu zaie, baina bizi-kalitatea ez da ona. Oso zaila dute dena, eta laguntzarik ere ia ez dute familiek. Gizartetik baztertuta daude gaixoak, eta ezin dute euren adinkideek egiten duten bizitza egin, eskolatik bertatik hasita. Desgaitasun guztietan bezala, gaixoei balorazio bat egiten diete eta haren arabera laguntzak ematen dizkiete, baina laguntza horiek ezereza dira dituzten behar guztietarako. Fibrosi kistikoa duten pertsonak 24 orduko laguntza berezitua behar izaten dute. Normalean gurasoak edo etxeako arduratzen dira zaintzaz, horrek dakarren guztiarekin. Zaintzaileen bizimodua ere erabat baldintzatzen du, beraz, gaixotasunak. Ezin izaten dituzte beren ohiko jarduerak eta lana garatu, eta horregatik uste dugu zaintza honetan diharduenak pertasio duin bat behar lukeela.

Eta hain justu ere familiengan pentsatuta sortu duzue proiektua, ezta?

Bai, hori da. Familiak salduta daude. Ikusten ez den gaixotasuna da fibrosi kistikoa, eta horrek diagnostikoa bera ere zailtzen du askotan. Gainera, ez dago aitortua. Jarri umea urtean zortzi aldiz ingesatzen dioten gurasoen lekuan! Jarri ospitaletik bi ordura bizi den familia horren lekuan! Atera kontuak zer den hori! Horregatik,

lehenengo eta behin, errekonozimendua eskatzen dugu, gaixotasun ikusezina izateak bidea ixten duelako. Eta horrez gain, honako laguntza hauek eskatzen ditugu: pentsio duina zaintzarako; gaixoak behar dituen fisioterapia saioak eta gainerako terapiak osasun publikoan jaso ahal izatea; formazioa, bai gaixoarentzat berarentzat eta baita haren ingurukoentzat ere, dauden terapiak egoki erabili ahal izateko; baliabide eta eskubide ekonomiko eta administratiboak, eta gaixoaren beharretara egokitutako etxebizitza, fibrosi kistikoa duen gaixoak bere fisioterapia saioetarako nahiz tratamenduak hartu ahal izateko gela edo espazio berezia behar duelako etxean, eta denek ez dutelako etxebizitza duin hori izateko aukerarik, baliabide guztiak gaixotasunak sortzen dituen beharretara bideratzen dituztelako. Beste zerbaite ere eskatzen dugu: Europak onartu dezala gaixotasun arraroek gaixoari berari ezezik haien etxekoei eta ingurukoiei ere eragiten diela.

Bixi proiektuan parte hartu edo lagundu nahi duenak, zer egin beharko luke?

Batetik aukera dauka Bruselatik Ondarroara egingo dugun bidaia horretan parte hartzeko. Hamahiru etapa dauzkagu zehaztuta eta track guztiak gure webgunean kontsultatu daitezke. Ekintza horren bidez oihartzuna sortu nahi dugu, beraz, beso zabalik hartuko ditugu guk denak. Bruselan bertan eta handik honako bidean beste zenbait herritan egingo ditugun geldialdietan proiektuaren berri emateko asmoa daukagu. Ondo bidean, abuztuaren 7an iritsiko gara Ondarroara, eta 9rako jaialdi bat antolatzen ari gara. Bestetik, CrowdFunding edo diru bilketa kanpaina ere abiatu dugu. *Bixi.eus* webgunearen bidez egin daiteke diru-ekarpena.

Bizikletaz lagundu nahi dutenak nola jarri daitezke zuekin harremanetan?

Etapen inguruko informazio guztia webgunean topatuko dute. Egin behar dugun bidearen paraleloan trena pasatzen da, eta beraz, nahi duenak erraza dauka: aukera dezala zein etapa egin nahi

"Zaintzailearen bizimodua ere erabat baldintzatzen du gaixotasunak. Ezin izaten dituzte beren ohiko jarduerak eta lana garatu eta horregatik eskatzen dugu pentsio duin bat haientzat"

duen, gerturatu dadila trenez abiapuntura eta taldera batu, eta gero nahi duen zatia egin dezala. Elgoibarren aurkeztu genuen barikuan, eta orain Erreterian eta Baionan aurkeztuko dugu *Bixi*. Sare sozialetan ere bagaude eta handik ere jarri ahalko dira gurekin harremanetan.

HAMAHIRU ETAPAK



EGUNA	ETAPA	KM	DESNIBELA
1. Uztailak 26	Brusela-Lille	112	386 m
2. Uztailak 27	Lille-Bapaume	79	294 m
3. Uztailak 28	Bapaume-Compiègne	92	344m
4. Uztailak 29	Compiègne-Paris	93	206 m
5. Uztailak 30	Paris- Angerville	83	495 m
6. Uztailak 31	Angerville-Blois	117	102 m
7. Abuztuak 1	Blois-Descartes	99	293 m
8. Abuztuak 2	Descartes-Civray	109	285 m
9. Abuztuak 3	Civray-Blanzac-Porcheressf	97	404 m
10. Abuztuak 4	Blanzac-Porcheresse-Burdeos	112	417 m
11. Abuztuak 5	Bordele-Labouheyre	86	152 m
12. Abuztuak 6	Labouheyre- Baiona	120	253 m
13. Abuztuak 7	Baiona-Ondarroa	115	1.180 m



Eukene Gurrutxaga, Dorleta Lazarobaster, Idoia Narbaiza, Ion Urbieto, Andoni Riaño, Alain Zulaika, Andoni Egaña eta Ainara Argoitia, ekimena sortzeko egindako estreinako bileran. 📸 Sonia Garcia.

■ Txirristaka, ahanzturatik oroimenera

Abenduaren 15ean 150 urte beteko dira Mendarok eman duen bertsolari handiena jairo zenetik. Eusebio Mugertza Azpiazu 'Txirristaka' zuen izena, eta bertso paperak saltzetik atera zuen bizimodua, besteak beste. Orain, haren omenez, kultur programa bat antolatu dute In leike kultur elkarteak, herritar talde batek eta Mendaroko Udalak elkarlanean, Andoni Egaña bertsolaria lagun dutela.

✍️ Ainara Argoitia

Nerez Mendaron jaiua naiz ni / Eusebio det izena / Donostiako ziudadian / aspaldi bizi naizena / makinatxo bat txorakeritan/ ibili izandu naizena, txikitan ongi aditu ez nuelako / apaiz jaun baten esana. Horrelaxe hasten du Eusebio Mugertza *Txirristakak* bere buruari eskainitako bertso sorta bat, 1974an Antonio Zabala idazleak (Tolosa, Gipuzkoa, 1928 – Iruñea, 2009) Auspoa bildumarako argitaratu zuen *Mendaro Txirristaka bertsolaria* liburuan jasotakoa. Mendarok eman duen bertsolari handiena izan da Txirristaka, eta abenduaren 15ean 150 urte beteko dira jairo zela.

Handia izan zen Eusebio Mugertzak bertso gintzari egindako ekarpena, baina hari buruz galdezka hasiz gero, asko izango dira Mendaron bertan ere izen bereko taberna baino ezagutzen ez dutenak. Horregatik, Txirristaka bera eta haren lana ezagutarazteko, kultur programa oso bat antolatu dute In Leikek, herritar talde batek eta Mendaroko Udalak

elkarlanean, Andoni Egaña bertsolaria lagun hartuta. Wikipediarako artikulua sortzea izan zuten lehenengo egitekoa, eta bost ekintza lotu dituzte orain abenduaren 15era bitartean gauzatzeko. Hasteko, Txirristaka bertso paper lehiaketa erreuperatu dute, urte askoan egin ez dena. Txirristakaren jaiotzaren 100. urtemugan antolatu zuen Guruzpe Kultur Elkarteak estreinakoz, eta bi sail izan zituen: Librean, eta *Mendaroko Txirristaka* gaia emanda. Euskaltzaindiko kideek egin zituzten epaimahai lanak bietan, eta gai librean, Fernando Aire *Xalbador* (Urepele, 1920 - 1976) bertsolariaren *Jainkoa eta ni* bertso sorta saritu zuten. Bigarren bertso sorta onena Jean Pier Mendibururena izan zen (Heleta, 1948-2022), eta hirugarrena Imanol Lazkanorena (Azpeitia, 1936). Mendaroko Txirristaka gaiari erantzun zioten lanen artean, berriz, Jabier Urbieto Urangaren (Mendaro, 1942-2023) bertso sorta aukeratu zuen epaimahaik.

Txirristaka Bertsopaper lehiaketa

Bertsolaritza eta bertso jarrien idazketa sustatzeko helburuarekin antolatu dute eta hiru kategoriatan izango ditu: A, B eta C. "*Quisiera ser alcalde...*" izango da kategoriatan guztietarako gaia -Txirristakaren beraren bertso sorta ezagunenetakoa bati egiten dio erreferentzia-. Euskaraz idatzi beharko dira, neurri librean. A kategoriatan 2010ean edo ondoren jaiotakoentzat izango da, eta Debabarrenekoek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Gutxienez bi bertso eta gehienez lau osatu beharko dituzte. B kategoriatan, berriz, 2006 eta 2009 urteen artean jaiotakoek (biak barne) parte hartu ahal izango dute, eta gutxienez lau bertso eta gehienez zortzi sortu beharko dituzte. C kategoriatan, azkenik, 2005ean eta lehenago jaiotakoek parte hartuko dute eta elkarrekin nolabaiteko batasuna duten 8-12 bertso osatu beharko dituzte. B eta C sailetan Euskal Herri osoko bertsozaleek parte hartu ahal izango dute.

Kategoriatan bakoitzeko bi sari banatuko dituzte: 100 eta 50 euroko kultura bono bi A kategoriatan; 200 eta 150 euroko bi sari B kategoriatan; eta 1.000 eta 500 euroko beste bi C kategoriatan. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 31 izango da. Parte-hartzaileek haien lana eta parte hartzeko datuak aurkeztu beharko dituzte, postaz (Mendaroko Udala. Herriko Enparantza plaza, 1. 20850 Mendaro) edo Udalaren webgunean jarritako formularioa beteta.

Lehiaketa honetako epaimahaia Debabarrenera lotutako bertsolaritza arloko hiru adituk osatuko dute: Irune Basagoiti bertsolari eta bertso irakaslea (Ermua, 2002), Asier Ibaibarriaga bertsozale eta epaile lanetan aritutakoak (Gernika-Lumo, 1973) eta Angel Ugarteburu bertsozaleak eta urte askoan bertso eskolen mugimenduan ibilitakoak (Berriatua, 1942). Oinarriak eta jarraibide gehiago Mendaroko Udalaren webgunean topa ditzakezue.

Performance-a

Ekainaren 14rako performance-a antolatu dute, Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin. Bertsoa eta antzerkia uztartuko ditu saioak. Herriz herri aritu ohi zen bere garaian Txirristaka bertso paperak saltzen, eta gisa

berean ibiliko dira bi bertsolariok. Txirristakaren bertso jarriak kantatuko ditu batak, eta bertso horiei gaur egundik erantzungo die besteak. Txandaka arituko dira bertsolariak bi lanetan, katean, 19:30ean hasita.

Gaztetxoentzako liburua

Antonio Zabalak jasota dauzka Txirristakaren bertso jarrietako asko 1974an argitaratu zuen liburuan. Urrea balio duen liburua da, baina ez, beharbada, publiko zabalarentzako. Horregatik, eta bereziki gaztetxoenei begira, haiei egokitutako liburua argitaratuko dute, ondo bidean irailerako. Andoni Egaña bertsolariari enkargatu diote idaztea, eta Ainara Azpiazu *Axpi* ilustratzaileari, irudiz jantzea.

Txirristakaren omenezko kontzertua

Urriaren 25erako bertso jarrien jaialdia lotzen ari dira, Mutrikuko, Debako, Elgoibarko eta Mendaroko musika eskolekin lankidetzan. Propio aukeratu dituzte lau herri horiek, Txirristaka bizi izan zen garaian Mendaroko lurra Mutriku, Elgoibar eta Debaren zati izan zirelako. Bertsolariak berak erabili izan zituen doinuetatik hamabi apartatu ditu Andoni Egaña bertsolariak eta haietzako jantzia sortzea proposatu diete bertso eskolei. Hau da, bakoitzak hiruna kantu berri sortzea Txirristakaren bertsoentzat, estilo, erritmo eta instrumentazio librean.

Kantu bazkaria

Asko falta da oraindik abendurako, eta zehaztasun handirik ez dute zabaldu, zenbait kontu lotzea falta dutelako, baina abenduaren 15ean, Eusebio Mugertza bertsolaria jaio zen egunez, kantu-bazkaria egitekoa dute Mendaron.


Guzti horrez gain, herritarrek beren etxeetan gordeta izan ditzaketen Txirristakaren bertso sortak batzeko ahalegina ere egin nahi dute, Antonio Zabalak bere garaian bildutakoak baino gehiago egongo direla jakitun. Horregatik dei egin diete Euskal Herri osoko bertsozaleei eta eskatu, etxean aleren bat gordeta izanez gero, antolatzaileekin harremanetan jartzeko, *mendarotxirristaka@gmail.com* helbidera idatzita. Ezagutzen ez diren bertsoak jaso, bilduma osatu eta Txirristakaren lana nora arte zabaldu den ikusi nahi dute.

'Kilimoiko dukea'

Eusebio Mugertza Txirristaka Garagartzako Barberokoa izeneko etxean jaio zen, Mendaron. Herrikoa zuen aita, Pedro Mugertza, Azpilgoetakoa, eta ama, berriz, Juana Azpiazu, azpeitiarra. Hamaika seme-alaba izan zituzten eta gazteena izan zen Eusebio. Eta hainbeste senide izanda, gazte laga behar izan zuen gurasoen etxea, morroi joateko lehenengo, eta harriak zulatzen ikastera joateko geroago, lehenengo Irurtzunera (Nafarroa) eta ondoren, 16 bat urterekin, Somorrostrora (Bizkaia). Sasorik onenean, 21 urterekin, Kubako gerrara joatea egokitu zitzaion adinez. Hiru-lau urte eman zituen han, harik eta Euskal Herrira itzuli zen arte berriro, baina munduan barrena asko bidaiatu zuen gizona izan zen gero ere, bere bertsotan irakur daitekeenez.

Bertsoaletu, berriz, umetan egin zen, elizan. 7 urterekin, monagillo lanetan hasi zen Mendaroko San Agustin komentuan, eta hantxe zaletu zen. Pedro Migel Urruzuno idazlea zen orduan Mendaron apaiz, eta Txirristakak berak bere bertsotan dioenez, bertsotan egin ohi zuen sermoia Urruzunok. Haren akolitoa, hala ere, ez zen sekula bat-batean aritu bertsotan. Bertsoak idatzi eta bertso paperak saltzetik atera zuen bizimodua, hein batean. Ez da gauza garbia noiz ekin zion bertsoak jartzeari, baina bere bertso zaharrenak 1920. urtekoak dira, Antonio Zabalak bere liburuan jasotakoaren arabera. 1974. urtean eman zuen argitarara liburu hori Zabalak, Guruzpe kultur elkartearen eskutik. Txirristaka jaio zeneko 100. urtemugan izan zen hori, duela 50 urte.

Bertsorik gehienak Erreterian eman zituen argitara Txirristakak, Makatzaga inprimategian. Ezagunak egin dira hark sortutako bertso asko, baina beharbada, *Quisiera ser alcalde Donostiakua* da bere bertso sorta ezagunena. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzi zituen bertsoak, nahiz euskarazkoak diren iritsi zaizkigun gehienak, Antonio Zabalak haiei eman zielako lehenatasuna. Edozelan ere, euskarazko bertsoetan ere sarri sartzen zituen bi hizkuntzak. Mendarotik Donostiara ezkondu zen Txirristaka eta han eman zituen bizitzako urterik gehienak. Hantxe ezagutu zuen emazte izango zuena ere, Loiolan, erromerian, Bilintxek lortu ez zuena,



Elizan bertsoaletu zen Txirristaka, sermoiak bertsotan egiten zituen Pedro Migel Urruzuno apaiz eta idazle izan zenari entzunez

eta 1905. urteko martxoaren 1ean ezkondu ziren. Juana Iraregi Sansinenea zuen emaztea, kontratista liberal baten alaba, eta hiru alaba izan zituzten elkarrekin: Engrazi, Karmen eta Maria.

Bertsolariak berak idatzitakotik osatu zuen hein handi batean haren biografia Zabalak berak ere, ez baitzuen inolako erreparorik izan Txirristakak bertsotan bere buruaz eta bere ibilerez aritzeko. Marketin kontuez ere bazekien beste askok adina bere buruari Mendaroko dukea esaten zion bertsolari hark, bertso guztiak bere argazkiarekin eta bizi zen lekuko helbidearekin saldu ohi zituelako.


ELGOIBARREN SORTUTAKO MUSIKAK HARTUKO DU BIHAR MAALAKO PARKEA

EME egunaren hirugarren edizioa antolatu du biharko Elgoibarko Musikarien Elkarteak, Udalaren eta Ilunpe, Derry, Sua, Lanbroa, Malape, Tantaka eta Viento Sur tabernen laguntzarekin. Aurreko edizioetan bezala, bazkaria eta kontzertuak iragarri dituzte antolatzaileek, baina berrikuntzak egongo dira. Eguerdi partean hasiko da festa, eta goizaldera arte luzatuko da.

✍ Ainhoa Andonegi / 📸 EME

Elgoibarko musika taldeei laguntzeko eta haien lana sustatzeko sortu zuten Elgoibarko Musikarien Elkarteak 2018an, eta besteak beste, Elgoibarko musika taldeek oholtzara irteteko aukera izaten dute EME Egunean. Musika zaleen agendan bere lekua egitea lortu du EME Egunak. Biharkoa izango da ekitaldiaren hirugarren edizioa, eta berrikuntzekin dator. 13:00etan hasiko da jaia, Bikustik bikotearen kontzertu berezi batekin. Oraingoan, ekitaldia babestu duten tabernetan ibiliko dira Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta. Tantakan hasiko dute saioa eta Derry talbernaren aurrean ere geldialdia egingo dute, bai eta Maalan ere..

15:00ak aldera bazkaria egingo dute, eta aurtan EMEko bazkideei ez ezik, herritarrei ere eman diete bazkarian parte hartzeko aukera.



Guztira 65 lagun bilduko dira Maalako parkean bazkaritarako. Horren ostean, 17:30 aldera hasiko dira Elgoibarko taldeen kontzertuak, eta talde bakoitzak 40 bat minutuko emanaldia emango du. Kontzertu guztien ostean, emekideen bertsio festarekin emango diote azkena ospakizunari.

⚡ Bikustik

(13:00, kalean zehar)

Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak 2008ko maiatzean sortu zuten proiektua da. Rockaren klasikoak eta gaur egungo beste hainbat kantu modu akustikoan moldatzen ditu bikote honek. Beatles, Queen, Janis Joplin, Led Zeppelin eta Creedence Clearwater Revival moduko taldeen kantuak bertsionatzen dituzte.



⚡ Gabi eta Alfon (17:30)

Koska euskal rockaren talde aitzindariaren bi konpositoreek, Gabi Agirregomezkortak eta Alfonso Guillok, osatzen dute biko hau eta apenas behar duten aurkezpenik inguruotan. Ahotsa eta gitarra akustikoa jartzen ditu Alfonsok eta gitarra elektrikoarekin osatzen ditu abestiak Gabik. Rock vintagea egiten dute. Chuck Berryren rock'n roll batzuk, The Beatles nahiz Credence Clearwater Revivalen abestiak, Straycatsen rockabillyren bat, Koska taldeak ezagun egin zituen kantua... joko dituzte.



⚡ Xut (18:10)

Oscar Gonzalezek (baxua eta ahotsa), Jokin Zubillagak (bateria eta ahotsa) eta Expresión Sonora eta Koska rock talde aitzindarien sortzaile den Gabi Agirregomezkortak (gitarra eta ahotsa) osatzen dute. Rock eta blues klasikoaren abesti ezagunak jotzen dituzte, besteak beste Fleetwood Mac, Bad Company, Joe Cocker eta Dire Straitsenak.



⚡ Txoteko Ezpata (19:30)

Asier Etxaniz, Mikel Cornejo, Rafa Furnier eta Josu Iriondok osatzen dute Txoteko Ezpata taldea. Urteak daramatzate elkarrekin jotzen, eta Pedro Mugurutzako lokalak egin zituztenez berriz hasi ziren entseatzeko. Euskaraz abesten dute, pop-rock estiloan, baina euren ukitu propioarekin. Abesti propioak dituzte, eta horiez gain, abesti ezagun baten bertsiotzat ere joko dute bihar.



⚡ Unnamed (18:50)

Iñigo Araujok eta Gorka Camposek osatzen dute Unnamed bikotea. Gitarra jotzen dute biek, eta talde ezagunen abestien bertsiotzat jotzen dituzte, pop-rock alternatibo estiloan. Urtarrilean hasi ziren entseatzeko, eta konturatu orduko etorri zaie jendaurrean debuta egiteko aukera. Araujo Arima Beltza taldeko baxu jolea izan zen, eta Campus berriz, estreinakoz igoko da bihar oholtzara.



⚡ DJ Agote (20:10)

Ibai Agote dago DJ Agoteren atzean. Musika maite duen 19 urteko gazte elgoibartarra da. Iban Urizar *Amorante* izan zuen irakasle DBHn eta haren klase baten piztu zitzaion musikarako interesa. Eguberrietako opari modura gurasoei mahai txiki bat eskatu zien, eta hardcore musika jartzen hasi zen.

Gerora, technoa ere deskubritu zuen, eta orain Acid musikarekin tartekatzen du. Txalintxo, Salitre, Venecia edota Non bezalako aretoetan jo du aurten.



⚡ Jeizy's Tyros (21:30)

2022an sortu zuten Jeizy's Tyros. Punk-rock musika estiloa jotzen dute, eta euskal taldeen kanten bertsioak egiten dituzte. Besteak beste, RIP, Rotten XIII edota La Polla taldeenak. Iñigo Arrese (ahotsa eta gitarra), Danel Legorburu (ahotsa eta bateria), Joseba Astigarraga (baxua eta Aitor Asenjo (gitarra) dira taldekideak.



⚡ Kitziki (20:50)

Elgoibarko, Azkoitiko eta Bergarako zazpi gaztek osatzen dute oraintsu sortu duten Kitziki musika taldea: Maialen Arriola, Maddi Arrieta, Nahia Carrillo, Olatz Makazaga eta Alaitz Landa elgoibartarrek, eta Enara Mujika (Bergara) eta Itxaso Alberdik (Azkoitia). Erromeria estiloan, talde ezagunen abestiak jotzen dituzte. Plazak dantzan jartzea da beraien helburua, beraiek gozatuz ikusleei ere gozaraziz.



⚡ Mutilated Soul (22:15)

Mutilated Soul taldea 1997an sortu zuten zuten Hellgoibarko fundizioko lokaletan. Death Metal kutsuko doinu gogorak egiteagatik egin ziren ezagun, eta hainbat herritan aurkeztu zituzten beraien kantak. 1999ko urtarrilean *Masakrea* EPA grabatu zuten hiru egunetan Mr. Jam estudioan, baina, EPA argitaratu baino lehen desegin zen taldea. Hauek ziren taldekideak: Joseba Azkue (ahots nagusia) Joseba Eugi (bateria), Iker Diego (gitarra eta koruak), Patxi Zabaleta (gitarra eta koruak), Urko Rosario (baxua). Biharko kontzertuan Urko Rosarioren ordez Josu Garciak joko du.



Juan Jose Araolaza hil da, Ikastolako eta Elgoibarko Izarrako lehendakari izandakoa

Juan Jose Araolaza Lahidalga euskaltzale eta kulturgilea hil zen apirilaren 11n, 80 urterekin. Zizurkildarra zen sortzez, baina 11 urte zituela etorri zen Elgoibarrera bizitzera, aitaren lanagatik. Zaragozara joan zen ikastera eta handik Madrilera gero, Podologia ikasketak egitera, eta handik bueltan, 1970ean, Ongarri Kultur Elkarteko eta Elgoibarko Izarrako kide egin zen. Felix Etxeberria *Parapanek* eta Luis Bilbaok proposatuta, Elgoibarko Izarrako lehendakari kargua hartu zuen gero eta Elgoibarko Ikastolaren lehendakaria ere izan zen, ikastola legalizatu aurretik eta osteko urteetan. Aubixa aterpetxearen ideia ere beragandik irten zen 1970 inguruan, eta 1973an jarri zuten martxan.



Arantxa Arrieta elgoibartarrarekin ezkondu zen Araolaza eta Elgoibartik Eibarrera aldatu ziren gero. Han ere ahalegindu zen Eibar euskalduntzen. 1992an, Eibarren euskara gutxi entzuten zela-eta, euskara elkarte sortzea erabaki zuen euskaltzale talde batek, eta bera izendatu zuten ...Eta Kitto! euskara elkarteko lehenengo presidente.

Herriko Antzokiko langileei babesa erakusteko elkarretaratzea egin dute



Herriko Antzokiko langileak borrokan daude, eta bi asteko greba iragarri dute. Aisilan XXI enpresarentzako lan egiten dute, eta apirilaren 11n hasi zuten greba, beraien lan baldintzak hobetzeko eskatzeko. ELA sindikatuak deituta, protesta ekitaldia egin zuten barikuan, Kalegoen plazan. Besteak beste, hitza bete dezala eskatu diote Aisilan enpresari, eta soldata duinak aldarrikatu dituzte. ELA sindikatutik jakitera eman dutenez, Aisilan enpresak 2016tik kudetzen du Herriko Antzokiko zerbitzua. Zornotzako enpresa bat da,

bereziki instituzio eta erakundeentzako kultura proiektuak kudeatzen dituen, eta Elgoibarren sei langile dituzte.

Apirilaren 24ra arte egongo dira greban, eta ondorioz, asteburu honetarako antolatuta zeuden hainbat ekitaldi bertan behera geratu dira: Gaurko iragarrita zegoen *Sólo hasta mañana* antzezlanaz da egongo, eta zine emanaldirik ere ez asteburuan. Udal musika bandaren domekako kontzertua, baina, bere horretan mantenduko da, eta baita Ongarriren eguazteneko zine emanaldia ere.

Abertzaletasuna eta euskarari buruzko eztabaida saioa, martitzenean



Zergatik eta zertarako euskaldun? egitasmoaren barruan *Euskara eta abertzaletasuna bide gurutzean?* izenburuko eztabaida-saioa antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Udalak martitzenerako. Aita Agirreko areto nagusian izango da, 19:00etan, eta hiru lagun gonbidatu dituzte: Joxe Manuel Odriozola (Altzo, 1948), udal euskaltegiko irakasle izandakoa eta azken

boladan hizkuntzaren eta nazioaren arteko harremanak aztertzen jardun dena, eta bestetik, Julen Zabalo (Basauri, 1957), EHUko irakaslea eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kidea. Moderatzaile lanak, berriz, Ainhoa Larrañagak (Angiozar, 1973) egingo ditu, Mondragon unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko graduako irakasleak. Euskara eta abertzaletasunaren arteko loturak aztertuko dituzte, etorkizunari begira jarrita.



Euskarazko film laburrak eguaztenean, Laburbira zikloan

Laburbira zirkuitoaren barruan euskarazko film laburrak ikusteko aukera izango da eguaztenean, hilaren 24an, Elgoibarren, Ongarrik eta Euskara Sailak antolatuta. Amaia Lejarretaren *Erro*, Jone Arriola elgoibartarraren *Dena asmatuta dago*, Guillermo Ordásen *Katalinaren zoria*, Ander Iruetagoienaren *Babesa*, Mikel Alvarezen *Mundu berri bat*, Ane Cuestaren *Zirrara*, Ilune Diaz eta Jordi Nueten *Talkak* eta Kim Maiteny Munoaren *Betizu buru*. Herriko Antzokian izango da, 21:00etatik aurrera, doan.

Apirilaren 27ra arte egongo da ikusgai Luzianoren erakusketa

Luziano Ruiz-Poveda margolariaren (Elgoibar, 1931) azken koadroen erakusketa inauguratu zuten barikuan, eta hilaren 27ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean. Artista elgoibartarra Madrilén bizi da eta ezin izan zen inauguraziora etorri, baina haren seme Miguel etorri zen bere izenean. Hark azaldu zuen aitzak azken bi urteotan margotu dituela koadroak, eta Elgoibartik aspaldi joan bazen ere, beti izan duela Elgoibar gogoan eta bihotzean. Orain arte egindakoaren oso bestelakoak dira azken koadro hauek, testura desberdinak eta kolore biziak nahastuz sortutakoak.



Ekain pailazoaren ikuskizuna izango da gaur zortzi, Urazandiko parkean

Ekain Iburguren (Azpeitia, 1996) pailazoaren emanaldia antolatu du Atxutxiamaiak datorren barikurako, Udalarekin lankidetzan. Umetan hasi zen Iburguren malabareekin praktikatzen, eta argi zeukan pailazo izan nahi zuela. Gure Zirkuko partaideetako bat da gaur egun. 17:00etan izango da ikuskizuna, Urazandiko parkean.

Elgoibarko Idazlan Lehiaketak baditu irabazleak



Elgoibarko Udalak, Kultura, Euskara eta Gazteria eta Hezkuntza sailen bitartez, antolatu duen VII. Idazlan lehiaketako sariak banatu zituzten eguaztenean. 166 lan aurkeztu dituzte guztira, eta horietako 26 saritu dituzte: Epaimahaia herriko literaturzale eta idazleek osatu dute, hala nola, Jasone Osorok, Jon Eugik eta Iñigo Otañok. Lehiaketaren helburua ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzea da, eta epaimahaikoen hitzetan, aurtengo edizioan azpimarratzekoa da balorazioa ezin dela iazkoa bezain baikorra izan parte-hartzeari dagokionez, jaitsi egin delako; eta horrek kezka eragiten die epaimahakideei. Batez ere, goiko mailetan gertatu da, eta lanen kalitatean ere eragina izan du, ale on gutxiago izan direlako. Hauek izan dira sarituak: Eneko Iturralde Arrizabalaga, Ane Ramos Barrutia, Alma Rescalvo Garcia, Nora Echaniz Cid, Izaro Postigo López, Anike Etxabe Abayomi,

Elene Garate Larrañaga, Nikole Zabaleta Otaegi, Jare Ulibarri Telletxea, Iker Goikoetxea Almeida, Nihal Achahboun Akoudad, Julen Olabarrieta Aurrekoetxea, Kalare Balsera Merino, Lore Basurto Gorostiza, Nora Gurrutxaga Iriondo, Itxaso Garaizabal Mugika, Olatz Garmendia Jauregi, Naia Eizagirre Garalde, Sara Sasiain Laskurain, Leire Etxaniz Bereziartua, Unax Ansola Arrieta, Ibon Makazaga Idarraga, Julen Lahoz Iribarren, Duna Santos Otegi, Erik Urresti Osoro eta Ivania Maybrith Alvarado Chichande.

Udalak sari banaketa ekitaldia baliatu zuen 2022an eta 2023an sarituak izan ziren lanekin argitaratu duen liburua aurkezteko. 300 ale argitaratu dituzte eta Udalaren asmoa da orain arteko edizioetako saridunei eta epaimahaikoei oparitzea. Eskoletan ere banatuko ditu ale batzuk, eta gainerako aleak Udaleko Euskara Sailean eta Liburutegian egongo dira eskuragai.

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Elgoibarko Udal Liburutegiak, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Gotzon Garate udal liburutegiak datorren asterako. Martitzenean bertan Lur Korta ipuinkontalariaren saioa izango da. 17:00etan LH 1ekoentzat, eta segidan, LH2 eta LH3koentzat. Egun berean, irakurketa errazeko

materialaren erakusketa egingo dute, eta 19:00etan Olaia Irigoienek *Inesa Gaxen* liburuaren irakurketa ozena. Hilaren 24an, bestalde, Epeletan literatur saioa egingo dute, eta *1362km euri* liburu landuko dute. Hilaren 30ean, berriz, Peio Añorgaren *Gerlari handia* liburuaz arituko dira gazteentzako irakurketa klubean.

Arkeologiaren gaineko hiru hitzaldi antolatu dituzte Mendaron maiatza-ekainerako

Iaz hasitako bidetik, arkeologiari buruzko hiru hitzaldiko zikloa antolatu dute Euskal Herriko Unibertsitateak, Suharri Kultur Elkarateak eta Mendaroko Udalak elkarlanean. Maiatzaren 24an (barikua) hasiko du zikloa Dani Ruiz Gonzalez aurrehistorialari eta arkeologoak, *Ehiztari, biltzaile eta artistak orain dela 15.000 urteko Aizkoltxon* izeneko izenburuko hitzaldiarekin. Udaletxeko udalbatza aretoan emango du hitzaldia, euskaraz, 19:00etan hasita. Hurrengo bi hitzaldiak maiatzaren 31n eta ekainaren 7an izango dira, biak ere udalbatza aretoan, eta ordutegi berean: 19:00etan.

Maiatzaren 31n Eder Dominguez EHuko Geografia, Prehistoria eta Arkeologia Saileko irakasle eta ikertzailearen txanda izango da. *De Fruitz a*



Ordizia. Rocas volcánicas y metamórficas usadas por los grupos prehistóricos' izeneko hitzaldia emango du. Ekainaren 7rako iragarri dute azkeneko hitzaldia, *Quo Vadis? Las últimas sociedades cazadoras-recolectoras en la encrucijada vasca* izenburuarekin. Adriana Soto Geografoa, Prehistoria y Arkeologia Saileko ikertzaileak emango du.

Albisteko argazkia iazkoa da, Alvaro Arrizabalaga Valbuena EHuko irakasleak eman zuen *El valle del Deba y Mendaro durante el Paleolítico'* hitzaldikoa.

Dantza familian saioa antolatu du Arno Guraso Elkarateak maiatzerako

Familian elkarrekin dantza egin eta gorputz mugimenduaren bidez emozioei, afektuei eta sormenari bide emateko tailerra antolatu du Arno Guraso Elkarateak maiatzaren 4rako, Udalaren laguntzarekin. Doan izango da, baina izena eman behar da apirilaren 30erako (arnoformakuntza@gmail.com). Bi saio izango dira: bata, 3 eta 5 urte bitartekoentzat, 10:30etik 11:15era. Bestea 6 eta 12 urte bitartekoentzat, 11:30etik 12:30era. Uxue Pascual Esnaola dantza mugimenduko terapietan aditua denak emango ditu bi saioak, ele bietan.

Aitziber Garmendiak hasi du Mendaron erreferente euskaldunen programa



Gazteei erreferente euskaldunak gerturatzeko In Leike kultur elkarateak eta Mendaroko Udalak elkarlanean sortu duten egitasmoaren baitan, Aitziber Garmendia aktorea elkarriketatu zuen astelehenean Aina Argoitia kazetariak, Mendaron. Udaletxeko udalbatza aretoan izan zen saioa, eta bete egin zen aretoa. Umetatik hasita, aktore ibilbidearen erreposoa egin zuten, eta euskaraz, sare sozialez, euskarazko kultur ekoizpenaz eta kontsumoaz, eta beste hainbat gairen inguruan jardun ziren, eta zuzenean ere interpretatu zituen hainbat pertsonaia Garmendiak.

Musika tresnen erakustaldi didaktikoak, Mendaron

Maiatzean zehar musika tresna ezberdinak probatzeko aukera emango dute Mendaroko Ameikutz musika eskolan. Interesa dutenek, baina, aurrez izena eman beharko dute, ordua lotzeko. Apirilaren 26a da horretarako azken eguna. Izena emateko: 943 254 275 edo 619 306 493 edo iameikutz@gmail.com



KIROLA ETA EUSKARA BAT EGINDA

  Ainhoa Andonegi



Elgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutxaga krosa jokatu zuten ume zein helduek domekan Elgoibarko kaleetan, *Eman aurpegixa euskerian alde* lemapean. Jose Gurrutxaga korrikalari elgoibartarraren izena darama Elgoibar Ikastolak antolatzen duen krosak, eta haren etxeokoe eman zieten hasiera lasterketa guztiei. Amaieran, gainera, Jose Gurrutxagaren seme eta bilobek korrika ere egin zuten, helduen lasterketan. Eskutik helduta sartu ziren helmugan, eta Juanjo semeak zerura begiratu zuen Kalegoen plazara iristean, aitari keinu eginez. Irudi polit eta hunkigarriak utzi zituen krosak. Argazki gehiago: barren.eus



Erlora irteera antolatu dute apirilaren 28rako, '100 urte, 100 mendi' ekimenaren baitan

Euskal Mendizale Federazioak eta Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioak 100 urte beteko dituzte datorren maiatzaren 18an, eta mendeurren-egitarauaren barruan *100 urte, 100 mendi* izeneko ekimena antolatu dute apirilaren 27 eta 28rako, non bi federazioetako Euskal Herriko ehun mendi taldek baino gehiagok 100 tontor igoko dituzten. Aldi berean 100 mendiko gailurretara igo eta gailurretan talde argazkiak aterata, une hori betikotu nahi dute antolatzaileek, *Mendiurreneko* - EMFk modu informalean mendeurreneko programazioari eman dion izena- ikurra erakutsita. Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkarteak ere hartuko du parte ekimenean, eta apirilaren 28rako Erlora antolatu duten mendi irteeran hartuko du parte, bi modutara. Batetik, hileroko umeentzako mendi irteera Erlora egitea erabaki dute. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira 09:30ean, eta autoetan joango dira Aittolako aparkalekuraino, handik Erlorainoko bidea oinez egiteko.

Bestetik, CATT Morkaiko Trail taldearekin batera, Elgoibartik hasiko den mendi ibilaldia antolatu dute egun bererako, apirilaren 28rako. Kasu horretan, Kalegoen plazatik abiatuko dira oinez, eta 15 kilometroko ibilbidean ia 1.000 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute Erloko tontorreraino (1030 m.). 09:00etan



irtengo dira plazatik. Irteera batean zein bestean parte hartzeko ez da izenik eman behar; adierazitako orduan agertzearekin nahikoa dela jakinarazi dute Morkaikotik, eta bakoitzak bere kabuz ere egin dezakeela irteera zehaztu dute mendi taldetik. Batera edo bestera izan, parte hartzera animatu dituzte herritarrak. "Baldintza bakarra, eguerdiko 12:00etan tontorrean egotea da, ahalik eta lagun gehien izateko argazkia ateratzeko orduan", eskatu dute.

Nuala Elkartearen aldeko elkartasun maratonia egingo du TX4Fitness gimnasioak



TX4Fitness gimnasiokoek urtero antolatzen dute elkartasun maratoni bat izaera sozialeko elkarteren bati laguntzeko, eta aurtengoa Nualaren aldekoa izatea erabaki dute. Zapatuan, apirilaren 20an, egingo dute Elkartasun maratonia gimnasioan. Bodycombat, bodybalance eta bodypump saioak eskainiko dituzte 10:00etatik 12:00etara bitartean (10:00etan Bodypump; 11:00etan Bodycombat eta 12:00etan Bodybalance).

Saio bakoitzean parte hartzeko bost euro ordaindu beharko dira, eta batutako dirua Nuala elkarteari emango diotela jakitera eman dute gimnasioko arduradunek.

Zabalik dago Berkoa Udaberri Xake Txapelketan parte hartzeko izen-ematea



Zubi-Ondo xake taldeak Berkoa Udaberri Xake Txapelketaren estreinako edizioa antolatu du. Suitzar eran jokatu dela da txapelketaren berezitasun nagusia eta partaideek zazpi erronda jokatu beharko dituzte, maiatzaren 6tik aurrera. Mintxeta tabernan jokatu dituzte partidak eta ekainaren 17tik 23ra bitartean jokatu dute azken erronda, zazpigarrena. Parekatutako jokalariek astebeteko epea edukiko dute elkarren aurkako partida jokatzeko. Eguna eta ordua beraien artean adostuko dute. Akordura iritsi ezean, partida aste horretako domekan jokatu beharko dute, 10:00etan. Bietako bat agertu ezean, partida galdutzat emango zaio. Parekatzeak FIDEK homologatutako software baten bitartez egingo dituzte, eta astelehen goizetan argitaratuko dituzte. 2012 aurretik jaiotakoek parte hartu ahal dute txapelketan. Doan da izena ematea eta udaberrimintxeta1@gmail.com helbidera mezua bidalita egin daiteke, maiatzaren 4ko 14:00ak baino lehenago.

Ateak irekitzeko astea, kiroldegian

APIRILAREN 22tik 26ra - Del 22 al 26 de Abril

ATE IREKIAK

Puertas abiertas

IZEN-EMATEA DOAN. APIRILAREN 19RA ARTE
Inscripción gratuita: hasta el 19 de abril

Jarduerak	Egunak	Ordutegiak
TRX	AR - OG	20:15
Krosfit	AR - OG	19:15
Body HITT	AR - OG	20:15
Body HITT	AL - AZ	18:00
Spinning	AL - AZ	18:00
Spinning	AL - AZ	19:00
Zunba	AL - AZ	19:15
Zunba	AR - OG	10:00
Pilates	AL - AZ	09:30
Haurdunaldiko gimnasia	AR - OG	11:00

ZATOZ SAIO BAT PROBATZERA!
¡Ven a probar una sesión!

Tel: 943 74 44 15
olaizagaharrera@hotmail.es

BPXport

Apirilaren 22tik 26ra Olaizaga kiroldegira joaten diren herritarrek -abonatuak zein abonatu gabekek-, bertan eskaintzen dituzten hainbat kirol jarduera probatzeko aukera izango dute, debalde. Izena emateko hiru modu daude: Olaizaga Kiroldegiko harreran aurrez-aurre, 943 744 415 telefono zenbakiaren bidez edota olaizagaharrera@hotmail.es helbidera idatzita. Gaur, apirilak 19, da izena emateko azken eguna.

Igeriketa Eguna, bihar

Olaizaga kiroldegiko igerilekuak gaztetxo beteko dira zapatu honetan (apirilak 20). Igeriketa eskolako kideez gainera, 6 eta 14 urte bitarteko dozenaka umek hartuko dute parte Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatzen duen Igeriketa Egunean. 130 bat espero dituzte.

Haurrek proba desberdinetan hartuko dute parte, bakoitzaren mailaren arabera. 10:00etan hasiko dira ekitaldiak LH4, LH5 eta LH6ko hurrekin, eta 11:00etan LH1, LH2 eta LH3ko hurren txanda izango da. Igeriketa Eskolan dabiltzan neska-mutiek erakustaldi bat ere emango dute.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, gauetan edo etxeko langile moduan. 632 229 972

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat. 632 721 342

Adinekoak zaintzeko prest nago. Malgutasun osoa. Titulu soziosanitarioa daukat. 631 020 169

Adinekoak zaintzeko prest nago. 679 912 841

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Asteburuetan ere bai. 641 756 213

Gizon arduratsua garbiketa lanak egiteko prest. Etxeak margotzeko edo peoi lanetarako ere bai. 632 708 954

Bikote langilea adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia. Etxeko langile moduan ere bai. 634 196 236

Umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, arratsalde. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat. 685 731 164

Astean zehar adinekoak zaintzeko prest nago. Baita gauak ospitalean igarotzeko ere. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa daukat. 685 729 790

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. 632 684 096

ETXEBIZITZAK

Elgoibarren logela bat hartuko nuke alokairuan. 610 198 012

IBILGAILUAK

2018ko Volkswagen Crafter furgoneta salgai. 4 atekoa, 210.000 km. Diesela. Egoera oso onean. 689 619 845

GARAJEAK

Garaje itxia salgai Jausoro plazan. Sarrera erraza dauka. 18m2 ditu. 626 591 658

BESTELAKOAK

500 m2 eta 5-6 hektarea artean dituen lursailaren bila nabil, zuhaitzak izan ditzake ala ez berdin zaigu. 621 074 553

Belarritako bat aurkitu nuen San Roke kalean. Udaltzainen bulegoan utzi dut.


OSPAKIZUNAK

1964an jaiotako bazkaria, ekainaren 22an, Sigma jatetxean. 13:00etan elkartuko dira Foruen plazan argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, eta 14:30ean bazkaria. 70 euro sartu behar dira ekainaren 8rako Laboral Kutxan. ES28 3035 0007 26 0071144881.

1959an jaiotako kinto ospakizuna ekainaren 8an. Maren tabernan batuko dira 13:00etan eta Sigman bazkalduko dute 14:30ean. 70 euro ordaindu behar dira maiatzaren 15erako. Laboral Kutxa: ES35 3035 0007 27 0071144803

  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean, kuota komunitarioen kopuru handi bat zor duen etxe-jabe bat dago. Pertsona horren etxebizitza hipotekatuta dago, eta jakin nahi nuke ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko aukerarik dagoen.</p> <p>Ordaindu gabeko kuotei dagozkien gastu orokorrak ordaintzen laguntzeko betebeharretik eratorzen diren komunitatearen aldeko kredituak lehenetasunezkoak dira. Hala ere, tamalez, lehenetasun hori ez da modu automatikoan aplikatzen. Baliarazi ahal izateko, kredituaren izaera pribilegiatua agerrarazi behar da, jabeari ordainketa egitera eta Jabetza Erregistroan jasotzera behartzen duen epaia emanaz. Horretarako, prozedura judicial bat egin behar da, eta bertan parte hartzera dei egin behar zaie erregistroan jasota dauden hipoteka-zordun guztiei.</p> <p>Ondorioa: jabetzak hipotekatuta dituzten jabe zordunei ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko prozeduran, beharrezkoa da enbargoa Jabetza Erregistroan jasotzea eta aurretik inskribatutako hipoteken edo enbargoen aurrean lehenetasunezkoa dela adieraztea. Prozeduran parte hartzen duen profesionalak horien titular guztiei aipatu eta luzatu behar die demanda, ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko prozeduran parte hartu duten guztiei, alegia.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Lucia**, asteartean 9 urte beteko dituzulako. Muxu eta besarkada handi bat, printzesa, familia osoaren partez.



Zorionak, **Satur** eta **Agurtzane** zuen urrezko ezteietan. Ederki ospatuko dugu. Muxu bat etxe-koen partez.



Zorionak, **Manex**, igandean 3 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Nikoleren partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

UDAKO GOZOGINTZA IKASTAROAK INGELESEZ

Lucy
681639284

- 8tik 12 urtera
- 4ko taldeak
- natiboarekin
- astebeteko ikastaroak
- uztaillean 9:00-13:00
- deitu maitzaren 17a baino lehen

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

EXPRESS ESKAINTZAK!

SAMSUNG RB34C675ESA/EF COMBI

729 € **A T G E**

- Ez Frost.
- 185 zm-ko altuera
- Powercool
- Space Max Teknologia
- SmartTHINGS energia MODE
- Atean integratutako pantaila
- Aztarnen kontrako herdoilgaitza

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

LAGUNAK
solcheneria textil hegar

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurria.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:

PUNUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOAK ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...

Komertzioekin lan egiten dugu (etxeko ehungintzekin eta jantziekin)
TARIFA BEREZIAKI!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

20 ZAPATUA

10:00 Igeriketa Eguna. Elgoibar Igeriketa Taldeak antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

10:00 Nualaren aldeko ellkartasun maratokia. TX4fitness gimnasioan.

12:00 EME Eguna. Elgoibarko Musikarien elkarteak antolatuta, Maalan. Bazkaria eta kontzertuak egongo dira.

12:00 Haurrentzako aisialdi eskaintzaren aurkezpena. Kalegoen plazan.

21 DOMEKA

10:00 Dultzaineroen diana. Kaleetan zehar.

12:30 Udal musika bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Juanma Saez Etxabe.

1. *Consuelo Ciscar* (Ferrer Ferran).
2. *Triptico vasco* (R.A. de Santiago).
3. *Choreography* (Robert Sheldon).
4. *Benamor* (Pablo Luna).
5. *Dschingis Khan* (C. Vlack).
6. *Red rock mountain* (Rossano Galante).

22 ASTELEHENA

16:00 Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko zerbitzua Merlín Medinarekin. Lilan, bakarkako saioak. Txanda hartzeko 688 640 983

18:00 Hausnarketa taldea: 'Maitagarria edo gorrotagarria, autonomia edo sumisioa'. Loredi Salegik gidatuta, Lilan.

23 MARTITZENA

17:30 Ipuin kontalaria: 'Ipuinekin jolasten'. Lur Kortak eskainiko du, Aita Agirreko areto nagusian. Lehen saioa LH1ekoentzat eta, 17:30ean LH2 eta LH3koentzat.

18:30 Irakurketa ozena. Olaia Irigoien 'Inesa Gaxen' liburua. Udal liburutegian.

19:00 Tertulia: 'Euskara eta abertzaleak: Bidegurutze berean?'. Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak antolatu dute 'Zergatik eta zertarako euskaldun?' programaren barruan, Aita Agirreko areto nagusian.

24 EGUAZTENA

16:00 Erorketak saihesteko tailerra. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

19:00 Epeletan literatur tailerra: Goizane Landabaso eta Garazi Goiaren '1362km euri' liburua. Udal liburutegian.

25 EGUENA

16:00 Erorketak saihesteko tailerra. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

26 BARIKUA


17:30 Ekain Ibarguren pailazoaren 'Slapstik' ikuskizuna. Atxutxiamaiak antolatuta, Urazandiko parkean.

18:30 Kafe tertulia, 7. arteari buruz. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.



Lorea Bedialauneta Eguiguren

2024ko apirilaren 15ean hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



V. URTEURRENA

Araceli Uribe Retolaza

2019ko apirilaren 19an hil zen.

**Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.**

Familiakoak



Zinea



'Laburbira'
(Ongarri zinekluba)
24, eguaztena: 21:00

OHARRA

Herriko Antzokiko langileen greba dela eta, asteburu honetan ez da zine emanaldirik egongo.

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

APIRILA

- | | |
|---------------|---------------|
| 19 BARIKUA | Garitaonandia |
| 20 ZAPATUA | Arriola |
| 21 DOMEKA | Arriola |
| 22 ASTELEHENA | ■ Fernandez |
| 23 MARTITZENA | Yudego |
| 24 EGUAZTENA | ■ Oruesagasti |
| 25 EGUENA | Barrenetxea |
| 26 BARIKUA | ■ Ibañez |

2024 urte guztian, gauzez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

- | | | |
|---|--|--|
| ■ Fernandez:
Herriko
Enparantza,4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142 | ■ Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638 | ■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384 |
|---|--|--|



XIII. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

Zauden lekuan, beti egongo zara gure bihotzetan.

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesusek



XIII. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

*Zure begiek ene maitia
badute biek dir-dir eztia
zeruko lore miresgarriak
izarren pare zoragarriak.*

Haren oroimenez XIII. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilaren 21ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Kontraesana

Anjel Ugarteburu



Arriskuan ei gaude. Hala diote. 1,5 graduko langa gainditzeko zorian. Klima aldaketaren zantzuak, negazionista itsuentzat ezik, agerikoak dira datuek erakusten dutenez.

Alde batetik **natura** dugu: sentikorra, hauskorra, zaurgarria, finitua, gu geu ere, natura izanda, hauskorrak eta ahulak garen bezalaxe. Bestetik gizaki lehiatsua, norgehiagoka infinito itsuan, natura zaurikor hori ustiatzen diharduena, kutsaduraren ondorioetan erreparatu gabe. Horixe da ikusten dugun kontraesan madarikatua: Natura finitua versus lehia infinitua, edo neurrigabea bederen. Azkenean etxekalte jokatzearaino, gurea ezezik gure ondorengoena ere baden etxea kaltetuz.

A d i b i d e a k jartze aldera, 2024 urtea hastearekin batera Norvegiako Gobernuak bere(?) itsasoetako hondoetan 280.000 metro koadroko zabaleran makineria erabili eta mineralak (litioa, kobalto...) erauzteko baimena eman die enpresa batzuei. Greenpeacek dioenez, itsas hondoa astintze horrek eragin suntsitzailer handia izango du itsas bizitzan, txapapote eta plastikozko pinporten eragina baino larriagoa izan litekeena.

Gainera, energia berdea deitzen dena hauspotzeko egiten omen da apustu hori, norvegiar gobernuak energia arduradunak esan duenez. Kalteak eraginda ere, handiagoa izan litekeela onura, mineral horiek lortuz CO₂a murrizteko aukera izango baikenuke.

Horixe izan da ia beti mugarik gabeko hazkundeak erabili eta ezarri duen logika:

Ingurunean, naturan eragindako kalteak aurrerapenak eskatzen dituen ekidin ezinezko ordaintzat, sakrifiziotzat, hartzea eta, azken batean, gure eraginaren kalteak onartzea, aurrerapenaren gupil zoroak berak emango digulakoan kalteak saihesteko aukera. Argi dago jokabide itsua dela, gizaki eta gizarteak modu librean (eragin kaltegarrietan gehiegi erreparatu gabe) natura manipulatzeko.

Ez da atzo goizeko kontua. 1990ean, Thomas Schelling Nobel saridunak "gure egokitzeko ahalmena arriskua baino handiagoa" dela esan zuen. Lehenago ere esana zuten natura ustiatzailer handiek "aldaketa b e h a r r e z k o a dela eta gure eginkizuna aldaketa horietara egokitzea dela". Sistemak hala eskatuta, **lehia** nagusitu da **elkarlanaren** gaitetik. Natura mugatua, lehia mugagabearen aurka; hortxe dago gure kontraesanen gakoa.

Bitartean, naturaren etorkizunaz kezka dutenek diotenez, beroketaren eragina konpontzea baino 70 bider merkeagoa izango litzateke beroketa saihestea. Nork ulertu aurrerapen eta irabaziaren sukarretan bizi direnak horretaz ez konturatu izana?

Nahiz eta ustiaketan dihardutenek iragarpen eta promesa lasaigarriak egin, ikusiak ikusita, baikor izateko motibo handirik ez dut ikusten. Euskarazko esaera zahar batek laburbil dezake gaurko mezua: "Esana bat eta izana bi, esanaz konforma hadi".







I. URTEURRENA

Maria Iriondo Arriola

2023ko apirilaren 22an hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
apirilaren 21ean, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

Beti gure bihotzean.

Etxekoak



IV. URTEURRENA

Maria Asuncion Mendikute Zubiaurre

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

***Zure argia ez da sekula itzaliko gure bihotzean,
gure gogoan biziko zara beti.***

Maite zaitugu.

Etxekoak



IV. URTEURRENA

Ioseba Arrizabalaga Mendikute

"Iriarte"

2020ko apirilaren 19an hil zen, 43 urte zituela.

Beti egongo zara gure bihotzetan.

Emaztea eta seme-alabak



Zergatik eta zertarako euskaldun? programaren baitan

EUSKARA ETA ABERTZALEAK, BIDEGURUTZE BEREAN?

EZTABAIDA-SAIOA



Joxe Manuel Odriozola Lizarribar

Euskara-irakaslea izandakoa eta soziolinguista



Julen Zabalo Bilbao

EHUko irakaslea eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kidea.

Ainhoa Larrañaga Elorza

Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta ikerlaria (Moderatzailea)



Abertzaletasunaren diskurtsoa pizgarri edo galga da euskararentzat?
Eskutik al datoz euskara eta abertzaletasuna?
Euskarak ematen al du botorik?

Apirilak 23, asteartea
19:00etan, Aita Agirre kulturgunean

